



❖ KONTZERTUA

'The Zepo' taldea

The Zepo rock taldearen kontzertua izango da gaur, Goiz Argi tabernan, gaueko 21:30etan. ||

❖ KIROLDEGIA

Igerilekua itxita bihar

Eskola kirola dela eta igerilekua bihar goizeko 11:00-etatik aurrera irekiko dute. ||

❖ ETXERAT

Kontzentrazioa

Kontzentrazioa izango da gaur presoen alde, Etxerat elkarteak antolatuta. *Estatu politikoa orain, Euskal Presoak Euskal Herrira* izango da lema. Gaur arratsaldeko 20:00etan, Zinkoenean. ||

❖ GAZTE ASANBLADA

Batzarra gaur

Gazte Asanbladak batzarra deitu du gaurko, datorren astean izango den AHTren kontrako astearren inguruan. Gaur arratsaldeko 19:00etan, Kontrakantxa gaztetxean. ||

Bihar Astigarragara

Gazte Asanblada Astigarragara joango da bihar, Astigarragako Gazte Asanbladak antolatutako olinpiaden amaiera jaira. Herri kirolak izango dira eta han parte hartuko dute. Joateko zita egin dute, bihar, goizeko 10:15etan, Kontrakantxa. ||

❖ ANTZIOLA

Sagardo eguna

Sagardo eguna izango da bihar Antzolian, auzo elkarteak antolatuta. Hernaniko sagardotegi guztietako sagardoa dastatzeko aukera izango da bertan. Goizeko 11:30-etan hasita, EPAko plazan. ||

❖ ZINEA BITERIN

'Dueños de la calle'

Dueños de la calle filma jarriko dute gaur 22:30etan. ||

❖ TXALAPARTA FESTA

Txalaparta emanaldi berezia eta Txalaparta Party Aparta gaur

Txalaparta Festak gaur izango du jarraipena, Sestaoko TX eskolak eskainiko duen emanaldiarekin. Gauean, Txalaparta Party Apartarekin dantza egiteko aukera izango da.

TXALAPARTA Festak gaur izango du jarraipena. Bi zita izango dituzte gaur txalapartazaleek arratsaldean, bata Sestaoko TX eskolak eskainiko duen *Hiru ipuin, liburu bakarra*. Aurreneko aldia da Sestaoko eskolak emanaldi bat prestatzen duela eta bertan, narrazioa, txalaparta eta



Txalaparta Festak bihar izango du jarraipena, erromeria, afaria eta jaialdi nagusiarekin.

EGITARAUA:

Maiatzak 23, ostirala

-19:30etan: Sestaoko TX Eskola taldearen txalaparta emanaldi berezia: *Hiru ipuin, liburu bakarra*.

-00:00etan: Txalaparta Party Aparta. Atxur tabernan.

Maiatzak 24, larunbata

-18:00etatik aurrera:

Txalaparta Erromeria.

Txalaparta saio libreak, sagardo banaketa, Hernani Musika Eskolako Alboka, Dultzaina, Trikitixa eta Txistu taldeen kale bueltak.

-21:00etan: Herri afaria.

-Ondoren: Txalaparta Jaialdi Nagusia. Bertsolariak eta Euskal Herri osoko txalapartariak.

beste hainbat instrumentu uztartzen dira, perkusio tresnak, albokak eta trikitixak, esaterako.

Gaur gauerdian izango dute txalapartazaleek bigarren zita, Atxur tabernan

izango den Txalaparta Party Apartan. Aurtengoan Aritz Sound System izango da musika aukeraketan. Musika beltza eta estilo elektronikoko musika jarriko du disko jartzaile hernaniarrak eta

harekin batean joko dute gonbidatutako txalapartariak.

Txalaparta festak bihar izango du bukaera, erromeria, afaria eta txalaparta jaialdi nagusiarekin. ||

◆ PELOTA-Herri Arteko Pelota Txapelketa

Hernani Elgoibarrera gaur, autobus eta guzti

HERNANI Herri Arteko Txapelketan aurrera dioa eta gaur Elgoibarren jokatu du joaneko partidua.

Kadete mailan, Eneko Aizpitarte eta Markel Lizeagak jokatu du, Gabilondo-Arri-

zabala Iaren kontra. Jubenil mailan, Ioritz Arrietak eta Aritz Otaegik jokatu dute, Arribillaga-Lizarralderen kontra. Nagusi mailan, Gariokitz Erroizenea eta Aitor Gorrotxategi ariko dira, Arri-

zabalaga-Loiolaren kontra.

Kadete mailan, Hernanik irabaztea espero du, baina jubenil mailan Elgoibar atarako da faborito. Nagusietan partidua estua espero dute hernaniarrek.

Autobusa pelotazaleentzat

Pelota elkarteak autobusa antolatu du pelotazaleentzat, 4 euroan. Gaur 20:45etan atarako da Atsegindegitik. Partidua gaueko 22:00etan hasiko da, Elgoibarren. ||

Maiatzatik Irailera gauero* zabalik
Asteko menu berezia ikusteko:
www.goiegi.com
* Igandea eta astelehena ezik

GOIEGI
Jatetxea - Restaurante

Irubide bailara 1 - 20180 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78

BigMat
Ariceta, s.a.
ALMAZEN MULTIESPEZIALISTAK

FRASINTA	KOMUNA ETA UTI IRRIAK
ILURDIN LOI	MARMIKAK
KU FRAKTIOA	INDIBIDUALIA
1940-1911 ALDIBARRAK	KUMURKUA ALDIBARRAK
PINTURAK	IFURRIBARRAK
AIH-MA-URKURAK	LANE-KOIZKARAK

Hernani
Dakurizaleko almagara: balentziopolgoia 30
Tel.: 943 55 09 55
Inguruko almagara: balentziopolgoia 30
Tel.: 943 55 20 94
Euzkoan: balentziopolgoia 30 Tel.: 943 33 01 86
Euzkoan: balentziopolgoia 30 Tel.: 943 45 11 11

GARAYAR AVTOBVSAK

Zerbitzu diskrezionalak (ESKOLARRAK)

Autobus zerbitzua
Linea erregularrak

Hernani - Aiete - Donostia - Aiete - Hernani
Andoain - Urnieta - Hernani - Donostia - Hernani - Urnieta - Andoain

Jaregi bailara 13 - Tel.: 943 556 658
Fax: 943 331 208 e-mail: mgarayar@focinet.es 20120 Hernani (Gipuzkoa)

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Eguzte:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● **Gauze:** **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Eguraldi nahasiarekin jarraituko dugu, batez ere arratsaldetik aurrera. Goizean euri arina egingo du, baina arratsaldean zaparradak bota ditzake. Tenperaturak gora.
BIHAR Ezegonkotasuna haundiko da. Laino ugari izango dira eta zaparradak botako ditu. Temperatura gradu pare bat jaitsiko da. (euskaime)

Hirigintza batzordeak oniritzia eman du Tellerigainen etxeak eta garajeak egiteko

Santa Barbarako harrobia bete eta txukuntzeko lanak adjudikatzea datorren Hirigintza batzordean hitz egingo da.

HIRIGINTZA batzordea izan da aste honetan. Enpresa partikular batek Tellerigain inguruan etxeak eta garajeak egiteko eskaerari oniritzia eman zion Hirigintza batzordeak. Enpresak etxeak eraiki nahi lituzkeen eremua, zehazki, Tellerigainen dago, etxe gorrien eta kanposantuen artean. Puntu honek aurrera egin dezan, Gobernu batzordeak onartu behar du.

Airearen kalitatea
Hirigintza batzordean Burretaldeko airearen kalitatea aztertzeko hitzarmenaz ere hitz egin zen. Hernanin, airearen kalitatea neurtzen duten hainbat dispositibo daude, eta asmoa dute Pipiritan beste dis-

positibo bat jartzeko. Airearen kalitatea aztertzeko hitzarmena entitate hauen artekoa da: Eusko Jaurlaritzak, EHUko Kimika Fakultatea eta Hernani, Andoain, Lasarte eta Astigarragako Udalak. Asmoa dute etorkizunean Usurbil eta Urrietako Udalak ere hitzarmen honetan satzeko. Hitzarmena plenora joango da.

Sagastiyan ekimen pribatuko etxebizitzak
Sagastiyan ekimen pribatu bidez egingo diren etxebizitzak ere hitz egin zen. Etxebizitza hauek Eusko Jaurlaritzak egingo dituen etxebizitzak goialdean kokatuko lirateke. Hirigintza batzordeak etxebizitza hauek egiteko

plan partziala onartzeari oniritzia eman zion. Plan partziala zera da: etxeak joango diren eremuaren diseinua, nolabait esatearren. Plan partzialak aurrera egin dezan, Plenoan onartu beharko litzateke.

Santa Barbarako proiektua hurrengo batzordera
Hirigintza batzordeko gai zerrendan, Santa Barbarako harrobia betetzeko eta ingurua txukuntzeko lanak ere bazeuden. Santa Barbarako proiektua dagoeneko badago eta orain, proiektu hau enpresaren bati adjudikatzea falta da lanak hasteko. Puntu hau datorren Hirigintza batzordean eztabaidatuko da. ||

Herriko arraindegietako hondakinak bilduko dituzte egunero

HERRIKO arraindegietako hondakinak bilduko ditu Hernanin kale garbiketa egiten duen enpresak, egunero eta goizez. Udalak jakinarazi duenez, berak eta *Fomento de Construcciones y Contratas*

enpresak (herriko kale garbiketaren egiten duen enpresa), hitzarmen bat sinatu dute enpresak arraindegietako hondakinak bildu dituzten goizeko 08:00etatik 09:00etara.

Zerbitzua joan den maiatzaren 12tik aurrera jarri zen martxan. Ordura arte arrain saltzaileek berek eramaten zituzten hondakinak Zubiondo poligonoan enpresak duen egoitzara. ||

EREÑOTZU


Batzarra bihar

Ereñotzuko auzo elkarteak deituta auzo batzarra izango da bihar. Apaizetxe berrituko obrak ikusi ahal izango dira eta bere erabileraz ere hitz egingo

dute. Horrez gain, Auzo udalaren prozesuaz ere hitz egingo dute. Ereñotzuko auzo elkateak auzotarrak animatu ditu batzarrera joateko, gaiak garrantzitsuak direlako. Batzarra bihar izango da, goizeko 10:30etan Apaizetxean. ||

ESKOLA KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

PALA-Gipuzkoako finalak				FUTBOLA-Gipuzkoako finalak			
Alebin neskak	Langile A-Pello Errota	Azpeitian	Gaur 16:00	Alebin neskak	Oiartzun-Elizatzko	Oiartzunen	Bihar 12:00
Infantil Neskak	Urumea B-Loinazpe A	Azpeitian	Gaur 17:00	FUTBOLA			
SASKIBALOI				Benj. Nesk.	Langile A-Langile D	Kiroldegian	Bihar 09:30
Benja. Mutil.	Elizatzko C-Urumea B	Kiroldegian	Bihar 09:30	Benj. Nesk.	Langile B-Langile C	Kiroldegian	Bihar 10:15
Benja. Mutil.	Langile C-Langile D	Kiroldegian	Bihar 10:20	Benj. Nesk.	Elizatzko A-Urumea A	Kiroldegian	Bihar 11:00
Benja. Mutil.	Langile B-Urumea A	Kiroldegian	Bihar 10:20	IGERIKETA			
Benja. Mutil.	Inmaculada-Elizatzko B	Kiroldegian	Bihar 11:10	Alebinak	Talde guztiak	Igerilekua	Bihar 09:00
Benja. Mutil.	Langile A-Elizatzko A	Kiroldegian	Bihar 11:10				



JASOTA BEZALA ATALA

Kartak bi abizenekin sinatuko dira

Hernaniko Kronikan Jasota Bezala atalean herritarren kartak publikatzen dira. Azken aldian argitaratutako gutun batekin gaizki ulertu bat izan da, izen abizen berdineko pertsona bat baino gehiago daudelako. Horrelako arazoak saihesteko, hemendik aurrera Hernaniko Kronikako kartak izena eta bi abizenekin publikatuko dira. Gogoratze aldera, horrez gain bidali beharreko informazioa da: NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa. ||

SAN JOANAK

Kantaitaren entsaioa gaur Gay Murren

San Joan Kantaitaren entsaioa izango da gaur Gay Murren (ez Gabriel Zelaian), arratsaldeko 20:30etan. ||

San Joan Konpartsaren entsaioak

San Joan Konpartsak entsaioa egingo du gaur Gay Murren, 19:30etan. Bihar ere izango da, leku berean, baina 17:00etan. ||

MUS TXAPELKETAK

Etxeberri elkartearen partidak gaur

Etxeberri elkartearen partidak jokatuko dira gaur; honakoak: Andres-Mikel/Rodri-Yohana; eta Alejandro-Gorka/Josemari-Jesus. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

4. URTEBETETZEA

Andres Bermejo Pablo

(MARI FE ARRAINDEGIA)

2004ko maiatzaren 23an hil zen, 60 urte zituela

- Goian bego -

"Andres, lagundu gaitzazu izaten, ahal duguna aldatzeko adorea, aldatu ezin duguna onartzeko lasaitasuna, eta desberdintasuna ulertzeko jakinduria".

MARI FE, JUAN MARI eta ANA.

Hernanin, 2008ko maiatzaren 23an.

IRAGARKI MERKEAK

- Hernanin aukerako pixua salgai.** Sukaldea, 3 logela, komuna, kalefakzioa... Kanpoaldera. Deitu: 628 116 949.
- Kamarero euskaldun bat behar,** astelehene ostiralera, arratsaldean lan egiteko. Jornada erdiko kontratua. Deitu: 656 778 803
- Volkswagen Transporter 2.5 tdi salgai,** 102 CV, kanpinerako prestaturua. 2001 urtekoa, ITVa pasata. Bizikletak eramateko, aire egokitua, erremolkerako bola... Deitu: 686 200 536
- Etxea salgai Hernanin.** 3 gela ditu, saloia, sukaldea eta komuna. Deitu: 943 55 25 85.
- Sukalderako laguntzaile behar dugu** Igeldoko sagardotegi batean lan egiteko, asteburuetan. Interesatuak deitu: 635 746 559
- Pertsona euskalduna behar da** Hernaniko taberna udaran lan egiteko. Deitu: 616 589 445
- Pixua salgai Florida (La Cumbren).** 60 m2 ditu, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna, 60 m2ko gamera eta trasteroa. Deitu: 627 501 957
- BIDEA** masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).
- Xanti Masajista.** Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P- 1 B).
- Yolanda estetika zentrua.** Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta *Kupperos*. Haserako eskaintza. Froga dohainik. **Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.**
- Argia zentroa.** Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**
- Argia zentroa.** Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**
- Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologikoa eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**